


Eraikuntzaren sektoreko jarduera % 11,0 hazi da 2023ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn

Obra zibila % 19,2 hazi da, eta eraikuntza % 9,8

Eraikuntzaren sektoreko jarduera, Euskal AEn, 2023ko bigarren hiruhilekoan, prezio arruntetan, iazko hiruhileko berean baino % 11,0 handiagoa izan da, Eustaten datuen arabera.

**Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte-
arteko aldakuntza-tasa (%)**
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhileko honetan, egutegiaren eraginak kendu ondoren prezio arruntetan izan den urtetik urterako igoera azaltzeko, kontuan izan behar dugu bai Obra Zibilak (% 19,2ko igoera, 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta) bai Eraikingintzak (% 9,8ko hazkundea) portaera positiboa izan dutela.

Sektoreak 2023ko bigarren hiruhileko honetan izan duen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, dagozkion urtaro-eraginak zuzendu ondoren, eraikuntzaren koiunturako indizea % 5,5 igo da, balio nominaletan edo prezio arruntetan adierazita. Eraikingintzako jarduera % 5,8 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta Obra Zibilekoa % 3,9.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak (%). Uneko prezioak (p). 2023/II

	Egutegiaren eragina zuzenduta		Desestazonalizatua
	t/t-4	At/At-1	t/t-1
Produkzioaren indizea	11,0	7,9	5,5
Eraikinak	9,8	6,7	5,8
Obra zibila	19,2	15,6	3,9
Landunkopuruaren indizea	0,1	-0,1	0,5

Oinarria 2015

(p)Behinbehineko datuak

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Data 2023ko Irailaren 6a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Langile landunen indizea, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 0,5 igo, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan 2022ko bigarren hiruhilekoan baino % 0,1 handiagoa izan da.

Informazio-oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea lagingaren % 78,39ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea,1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62